

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 50/2021 Foru Dekretua, urriaren 26koa. Onespena ematea toki erakundeetan etxebizitza zaharberritzeko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrei eta 2021 eta 2022rako deialdiari**

Etxebizitzak birgaitzeko Euskadiko politikak erreferentzia dira arloan, eta zaila da haien aurka eragozpen handiak jartzea. Aitzitik, berariazko aitortpena merezi dute. Hala ere, badute hutsune nabarmen gero eta kezagarriago bat: landa ingurunea.

Etxebizitzak birgaitzeko politika horiek, gehienetan, hirietako premiak hartzen dituzte kontuan, eta ia inoiz ez landa inguruneari eta zehatz-mehatz Arabako landa inguruneari eusten dioten herrien beharrak. Eta arazo horri administraziook, hau da, autonomia erkidegoko orokorrak, foru administrazioak eta udal administrazioak heldu behar diogu.

Etxebizitza da pertsonon bizitzako gune nagusia, han izaten ditugu gure harreman pertsonalik, familia harremanik eta gizarte harremanik garrantzitsuenak. Horregatik, hirietako etxebizitzak azken berrogeita hamar urteetan nabarmen bilakatu dira; halako moldez non adin horretako etxebizitza bat nekez lehia baitaiteke kalitatean eta beste edozein eratako prestaziotan etxebizitza egin berriekin. Aldiz, ekintza publikoa ez da ia existitzen landa etxebizitzan. Ekintza publikoak ukatu egiten ditu landa ingurunean hirigintza, irisgarritasuna, bero sareak, ur hornikuntza eta teknologia berriak, zeinak hiri ingurunean eztabaidaezinak baitira, eta ukatzen ditu arrazoi bategatik: ez dira betetzen ezarritako lege estandarrik, eta ez dira betetzen hiri errealtateak berarekin dituelako eta hiri errealtateari egokituta daudelako; hau da, landa errealtateak urrutitu daude.

Hartara, edozein pertsonak, batez ere gazteek, baldin eta egun erosotasun eta kalitate estandarrik izan nahi baldin baditu eta babes publikoa behar baldin badu, ezinbestean hiri ingurunera jo behar du.

Indarreko araudiak ez ditu kontuan hartzen ez dentsitatea, ez tipologia (bizitegitarako, blokean), ez neurriak, ezta askotariko erabilerak ere (landa etxebizitza askok lehen sektoreko jardueratarako osagarri zehatzak behar dituzte).

Horrez gain, gure landa ingurune biziaren beste paradoxa bat bizi du, hau ere larria eta benetan negatiboa: hirietako etxebizitzak garestitzeak eta aldi jakinetan soilik erabiltzeko bigarren etxebizitza baten nahiak sortutako herri asentamenduak.

Horrek, askotan, gure herrietako ingurune eraikia andeatu dute. Handitze horiek hirigune historikotik deskonektatuta dauden urbanizazioak izaten dira, eta kaltetu egin dute landa etxebizitzek espazio publikoa betetzeko betidanik zeukaten modua, herrietarako bildu, ezagutu eta sozializatzea ahalbidetzen zuena, eta horrek landa ingurune, herriko etxeko, balio askoren galera ekarri du.

Hortaz, administrazio publikoak bi bide landu behar ditugu:

Arabako herrietako bizilagunak babestu, etxebizitzaren politika publikoetan sar daitezkeen haien idiosinkrasiari uko egin gabe.

Arabako landa ingurunean eraikuntzak duen balio arkitektonikoa berreskuratu, landa etxe garaikide berri baterantz joz, zeinak, era berean, aukera emango baitu espazio publikoa gure herrien egituratzaile gisa berreskuratzeko.

Ondorioz, onartu eta sustatu beharra daukagu landa errealtateak estandar propio eta bereziak behar dituela, baita landa eraikin arkitektura onekoak eta garaikideak direla ere, hiri eraikinak diren legez, baina arkitektura hori loturik dagoela landa bizitzaren balio tradizionalei, eta, aldi berean, edozein hiritarrek XXI. mendean eska ditzakeen kalitate eta erosotasun estandarrik izan behar dituela.

Horretaz jakitun izanik, lehen pausoa eman nahi dugu. Dekretu honen helburu da, batetik, dirulaguntza politika zehatz eta mugatua ezartzea, eta bestetik, administrazio guztiei elkarlanean deia egitea, landa inguruneko ondare eraikia birgaitzeko politika publikoak martxan jartzeko, hala, hirietakoaren antzeko erosotasun eta kalitate estandarrak izan ditzan.

Etxebizitza gure bizitzen ardatza da, eta gure gizartea komunikaturik eta konektaturik dago garraibideen eta interneten bidez. Eta errealitate hori eta XXI. mendearekin bat datozen erai-kinak lehenengo pausoa izan daitezke neurriak jartzen hasteko Arabako Lurralde Historikoa herritarrez huts ez dadin.

Foru Aldundiaren legealdiaren helburu estrategikoetako bat lurralde oreka izanik, beharrezkoa iruditzen zaigu jarduketak finantzatzea, alde batetik, herrigune txikietan biztanleak finkatzen laguntzeko, eta bestetik, auzotarren arteko harremanak eta bizitza pertsonala eta lan eta familia bizitza erantzukidetasunez bateratzea sustatzeko.

Beharrezkoa da oinarri argi eta zehatzak ezartzea dirulaguntza horiek eskuratzeko, eta oinarri horiek objektibotasun, lehia eta publizitatearen printzipioak bermatu behar dituzte. Horregatik, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntza eta Transferentzien 11/2016 Legeak eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak ezarritakoa aplikatuz, hona hemen herrigune txikiak dituzten toki erakundeetan etxebizitzak birgaitzeko laguntzak arautuko dituzten oinarriak.

Oinarriak eta deialdia idazteko, kontuan hartu da Emakumeen eta Gizonen benetako Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Legeak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ezarritako arau esparrua.

Halaber, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauaren 7.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, oinarri arautzaileetan kontuan hartu da euskararen erabilaren faktorea, Arabako Foru Aldundiak onetsitako hizkuntza normalizazioko politikaren esparruan, eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen arabera.

Horregatik guztiagatik, Lurralde Oreken Saileko diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Lurralde Oreken Sailaren dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak, bai toki erakundeek, bai horietan bizi diren pertsona fisikoek etxebizitzak birgaitzeko egiten dituzten ekintzak finantzatzeko.

Aipatutako oinarriak dekretu honen I. eranskin gisa jaso dira.

Bigarrena. Onestea dirulaguntzak lehia askearen bidez emateko deialdia, 100.000,00 euroko zenbatekoaz 2021eko ekitaldi honetarako eta 150.000 euroko zenbatekoaz 2022ko ekitaldirako (zorpekin erreferentziak: 105-360/000 21.1.21 y 105-11/000 21.3.22).

Deialdi hori espedienteari lotuta dago eta dekretu honen II. eranskina da.

Hirugarrena. Dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2021. urterako aurrekontuko partida honen kontura emango dira: "10.2.00.16.02.780.00.01 Etxebizitza birgaitzeko laguntzak", lerroa: 10-0046.

Laugarrena. Foru Dekretu hau ALHAOn argitara dadila.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 26a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Lurralde Oreken Saileko foru diputatua*

**IRMA BASTERRA UGARRIZA**

*Lurralde Oreken zuzendaria*

**JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA**

## I ERANSKINA

### **Dirulaguntzak lehia askearen bidez emateko oinarri arautzaile orokorrak, bai toki erakundeek, bai horietan bizi diren pertsona fisikoek etxebizitzak birgaitzeko egiten dituzten ekintzak finantzatzeko**

#### **1. Xedea**

Dirulaguntza jaso ahal izango dute 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan kokatutako 1.500 biztanletik beherako herriguneetan dauden toki erakundeek etxebizitzak birgaitzeko ekintzek, bai eta horietan bizi diren pertsona fisikoek egiten dituztenek ere.

Dirulaguntzaren helburua da 1.500 biztanletik behera dituzten herrigune horietan etxebizitzak birgaitzeko finantzaketa ematea, tokiko erakundeetan biztanleriari eustea sustatzeko eta landa eremuan arkitektura kalitateko, erosotasuneko, energia efizientziako, irisgarritasuneko, konektibitateko eta etxeko bizi kalitateko estandar berriak ezartzeko, oro har.

#### **2. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak**

Diruz laguntzeko modukotzat joko dira, eta, beraz, deialdi honen kargura finantzatu ahal izango dira, deialdi bakoitzean zehazten diren koefizienteekin:

- a. Birgaitze proiektuak idaztea.
- b. Birgaitzearen gauzatze materiala, urbanizazio jarduketak barne.
- c. Proiektua gauzatzeko zuzendaritza teknikoa.

Diruz lagundu ahal izango dira 1.500 biztanletik beherako herriguneetan biztanleriari eusten laguntzeko birgaitze jarduera guztiak, baldin eta tipologia hauetan sailkatzen badira:

- a. Egitura egokitzeko eta/edo fatxadak eta estalkiak birgaitzeko obrak, etxebizitzaren birgaitze integral kontserbatzailea helburu duten esku hartzeetan.
- b. Bizigarritasuna edota akaberak egokitzeko barne obrak, etxebizitzaren birgaitze integral kontserbatzailea helburu duten esku hartzeetan.
- c. Egitura egokitzeko eta/edo fatxadak eta estalkiak birgaitzeko obrak, etxebizitzaren zati bat birgaitzea edo eraberritzea helburu duten esku hartzeetan.
- d. Bizigarritasuna edota akaberak egokitzeko barne obrak, etxebizitzaren zati bat birgaitzea edo eraberritzea helburu duten esku hartzeetan.

Onuradunak jabeak, maizterrak, gozamendunak edo birgaitu beharreko etxebizitzaren gaineko erabilera edo gozamen eskubideen beste edozein titular izan beharko dira, eta birgaitze jarduketek indarrean dagoen hirigintza legeria bete beharko dute.

Urteko deialdian zehaztuko da zer baldintza bete behar dituzten diruz lagun daitezkeen obrek.

#### **3. Diruz lagun daitezkeen inbertsio eta gastuak eta baldintza gehigarriak**

1. Diruz lagun daitezkeen gastuak izango dira soilik, zalantzarik gabe diruz lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak eta behar-beharrezkoak direnak, eta BEZa, baldin eta onuradunak berreskuratu ezin badu.

2. Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzak bateragarriak dira xede bererako beste administrazio edo erakunde publiko zein erakunde pribatu batzuek (estatukoek, Europar Batasunekoek zein nazioartekoek) ematen dituzten dirulaguntzekin, laguntzekin, sarrerekin eta baliabideekin.

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa, bakarrik edo beste dirulaguntzekin edo diru sarrerekin batera, ezin da izan jardueraren kostua baino handiagoa.

4. Pertsona fisiko edo juridiko onuradunek diruz lagundutako jarduketak behar bezala eta erabat gauzatzeko behar diren izapide guztiak egin behar dituzte eta behar diren baimen guztiak lortu, lanak hasten direnetik behin betiko jaso arte.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 3. artikulua arabera, honako hauek dira emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal herri aginteen jarduketa gidatu eta bideratuko duten printzipio orokorrak: tratu berdina, aukera berdintasuna, dibertsitatea eta ezberdintasuna errespetatzea, genero ikuspegiaren integrazioa, ekintza positiboa, sexuaren araberako rola eta estereotipoak desagerraraztea, ordezkartza orekatua, eta koordinazioa eta lankidetzak.

Halaber, lege horren 46.1 artikulua xedatzen du beharrezkoak diren neurriak hartu behar direla ingurumen, etxebizitza, hirigintza eta garraioko politikan zein programetan genero ikuspegia txertatuta dagoela bermatzeko, eta, besteak beste, honako hauek hartu behar direla kontuan: pertsonen segurtasuna; etxeko lanak egitea eta pertsonak zaintzea erraztea; bizitza pertsonala familia eta lanarekin uztartu ahal izatea erraztea; bai eta politika eta programa horiek diseinatu eta betetzerakoan emakumeek partaidetza handiagoa izan dezatela bultzatzea ere.

Horrez gainera, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoaren hirigintza politikei, lurralde antolaketari eta etxebizitzari buruzko 31.1 artikulua arabera, etxebizitza eskuratzeari buruzko administrazio publikoen politika eta planek neurriak jaso behar dituzte emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eragingarria izan dadin.

Diruz lagundutako jarduera betetzeko administrazio kontratuak egiten badira, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 20. artikulua aplikatu beharko da. Ondorioz, kontratua betetzeko baldintzen artean esleipendunak izango duen betebeharrak bat jaso beharko da: prestazioa ematean, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak aplikatzea; hori guztiori, kontratuen legedia betetzeko eta betiere organo eskudunak erabaki badu neurri hori aplikatu behar zaiola kontratazio mota edo ezaugarri horri.

Halaber, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen arabera, esleipendunak hizkuntza ofizial bien tratamendu eta erabilera egokiak bermatu beharko ditu, eskumena duen organoak uste badu kontratuaren xedeak hala eskatzen duela.

#### **4. Baliabide ekonomikoak**

Kasuan kasuko deialdiak zehaztuko du oinarri hauen bidez deitutako dirulaguntzak guztira zenbatekoak izango diren eta aurrekontuko zein partidari egotziko zaizkion.

#### **5. Pertsona onuradunak**

Dirulaguntza hauek jaso ahal izango dituzte Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeek, baldin eta 1.500 biztanle baino gutxiagoko herriguneak badituzte eta 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan badaude.

Toki erakunde horietan bizi diren pertsona fisikoak ere dirulaguntzen hartzaileak izan ahalko dira.

Dirulaguntza hauek eskatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak titularrak, maizterrak, gozamenak edo birgaitu beharreko etxebizitzaren gaineko erabilera edo gozamen eskubideen beste edozein titular izan beharko dira.

Pertsona fisikoaren kasuan, dirulaguntzaren helburua betetzen dela justifikatzen den egunean etxebizitza horretan erroldatuta egon beharko dute eta bertan bizi. Baldintza hori betetzen ez bada, ordaindutako aurrerakina itzultzeko prozedura hasiko da.

Toki erakundearen kasuan, birgaitutako etxebizitzak alokairurako, zuzkidura bizitokirako, genero indarkeriako egoeran dauden pertsonentzako bizitokirako eta gizarte bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen berehalako arreta emateko erabili beharko dira.

Ezin dira onuradun izan Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak IV. tituluan adierazitako arau hausteren bat dela eta zehatu direnak, ez eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak jasotako kasuetan daudenak ere.

#### **6. Dirulaguntzak emateko prozedura. Dirulaguntzen zenbatekoa**

Dirulaguntzak lehia askearen bidez emango dira.

Lurralde Oreaken Saileko zerbitzu teknikoek balioetsiko dituzte birgaitze proiektuak, eskaera ordena kontuan hartuta.

Diruz lagundu daitekeen gehienezko ehunekoa birgaitze jardueraren guztizko kostuaren arabera kalkulatu da. Jardueraren kostutzat hartuko da lizitazioaren oinarritzko aurrekontua gehi onuradunak berreskuratu ezin duen BEZaren ehunekoa.

Pertsona fisiko edo juridiko onuradunek ebazpenaren jakinarazpena jasotzen dutenetik hamar egun baliodunetan dirulaguntzari idatziz uko egiten ez badiote, ebazpenean ezarritakoa onartu dutela pentsatuko da.

Dotazioa agortu ondoren dirulaguntzarik gabe geratzen diren eskaerak poltsa batean sartuko dira aurkeztutako ordenaren arabera hurrenkeran. Eskatzaile hauek dirulaguntza jasoko dute hasieran banatutako funtsetako batzuk erabiltzen ez badira, onuradunen batek bere dirulaguntzari uko egin diolako. Ukoak bi hilabeteko epearen barruan egin beharko dira dirulaguntza eman zaiela jakinarazten denetik aurrera.

#### **7. Onuradunak dirulaguntza jasotzerakoan lortu nahi zen helburua lortu izana justifikatzeko modua eta epea, eta ordainketa**

Dirulaguntza bat ordaindu baino lehen, haren xede den jarduera egin dela justifikatu behar da, oro har. Hala ere, urteko deialdian justifikatu beharreko aurrerakinak egotea aurreikusi ahal izango da.

Dirulaguntza ordaintzeko, deialdian zehaztuko den dokumentazioa aurkeztu beharko da. Kasuan kasuko deialdian ezarriko da hura aurkezteko gehienezko epea.

Justifikazioa honela egin beharko da:

a) Jarduerak egin izana justifikatzeko memoria aurkeztu beharko da; agiri horretan jaso beharko dira eskaeran aurkeztutako aurrekontuko partidak eta laguntzaren xede den inbertsioa gauzatzeko egindako gastuak eta kostu hautagarriak, eta benetako gauzatzearekiko alderaketa.

b) Fakturen kopia eta haiek ordaindu izana egiaztatzen duten banku frogagirien kopia.

#### **8. Babesa**

Dirulaguntza jaso duen jarduera dela-eta egiten diren argitalpenetan, liburuxketan edo bestelako publizitate modu guztietan Arabako Foru Aldundiko Lurralde Oreaken Sailak emandako dirulaguntzaren berriazko aipamena egin behar da. Horrez gainera, generoaren ikuspegitik hizkuntza zuzen erabiltzen dela bermatu beharko da, eta informazioa emakume eta gizonei parekidetasunez iristeko mezu eta kanal egokiak erabili beharko dira. Bestalde, diruz lagundutako jardueraren zabalkundea eta publizitatea, euskarria edozein dela ere (liburuxkak, kartelak, argitalpenak...), bi hizkuntza ofizialetan egin beharko da, eta ezingo du estereotipo eta rol sexistarik izan.

#### **9. Dirulaguntza itzultzea**

Dirulaguntza itzuli beharko da honako hauek ezarritako kasuetan: Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Araua, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Arautegia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.

Jaso ondoren itzuli beharreko dirulaguntzak zuzenbide publikoko sarrerek izango dira, eta Ekonomia eta Aurrekontu Araubidearen abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak II. tituluko I. kapituluaren ezarritakoaren arabera kobratuko dira.

Kasu hauek oinarrien ez-betetzeak izango dira:

- a. Justifikatzeko obligazioa ez betetzea.
- b. Dirulaguntza eskuratzea eskatutako baldintzak bete gabe.
- c. Dirulaguntza helburu baterako eskatu eta horretarako ez erabiltzea.
- d. Erakunde onuradunak ez betetzea dirulaguntza jasotzeagatik jarritako baldintzak.
- e. Kontrol edo egiaztatze jarduerak oztopatzea edo galaraztea.
- f. Jarduera gauzatzeko behar den baino diru gehiago jasotzea. Kasu horretan, jardueraren kostuaren gainetik eskuratutako soberakina itzuli beharko da, dagozkion berandutze interesak gehituta.
- g. Xede bererako beste dirulaguntzaren bat jaso dela ez aitortzea.

#### **10. Egiaztapena**

Lurralde Orekaren Saileko diputatuak deialdi hau garatzeko egokitzat jotzen diren ebazpenak emango ditu, dirulaguntza izapidetzen duen unitate organikoaren ekimenez, eta ekintzak abiarazi ahal izango ditu pertsona onuradunek emandako datuak egiazkoak direla eta oinarri hauetan araututakoa betetzen dela egiaztatzeko eta horretara behartzeko.

Horretarako, onuradunek konpromisoa hartzen dute beraiek egindako jarduerekin loturik dauden eta Lurralde Orekaren Sailak eskatzen dizkien datu eta agiri guztiak emateko. Horrez gain, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontuen Epaitegiak edo eskumena duten beste-lako erakundeek eskatzen dieten informazio guztia ere eman beharko dute.

#### **11. Erantzukizunak**

Pertsona fisiko edo juridiko onuradunek beren gain hartuko dituzte jarduera edo programak gauzatzearen ondoriozko erantzukizun guztiak, eta indarrean den legediak jarduerak edo programak gauzatzeko galdegiten dituen baimen guztiak eskatu beharko dituzte.

#### **12. Aldaketak**

Onetsitako dirulaguntza berriro aztertuko da, gastua finantzatzeko beste erakunde batzuek egindako ekarpen osagarriak edo beste diru sarrera batzuk ere erabili direla jakiten bada. Horrelakoetan, diruz lagundutako gastuen eta diru sarreren arteko likidazioa egin eta hortik ateratzen den emaitza defizitarioa izango da dirulaguntzaren behin betiko gehieneko zenbatekoa.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan aldaketaren bat gertatzeak eta edozein erakunde publiko edo pribaturen helburu bererako dirulaguntzak edo laguntzak eskuratzeak emakida ebazpena aldatzea ekarriko du, bai eta dirulaguntzaren zati bat itzultzea ere. Behin dirulaguntza onetsitakoan, hura emateko arrazoi izan ziren egitatezko inguruabarrek hura aldatzea eragiten badute, Lurralde Orekaren Saileko diputatuak aldatu ahal izango du, dagokion foru aginduaren bidez, onuradunak proposamen arrazoitua eginez gero.

#### **13. Interpretazioa**

Oinarri hauen interpretazioaren inguruan sortzen diren zalantzak Arabako Foru Aldundiko Lurralde Orekaren Sailak ebatziko ditu.

#### **14. Errekurtsoak**

Oinarri hauek eta beren ondoriozko administrazio egintza guztiak aurkaratu ahal izango dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak arautzen dituen kasuetan eta bertan finkatzen den moduan.

**15. Aplikatu beharreko arautegia**

Oinarri hauetan xedatzen ez den edozertarako honako arau hauek aplikatuko dira: Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Araua; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Araudia onesten duena; Arabako Lurralde Historikoko Ekonomia eta Aurrekontu Araubidearen abenduaren 18ko 53/1992 Foru Araua; indarrean dagoen aurrekontu antolamenduari buruzko foru araua; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, eta aplikagarriak diren gainerako arauak.

**16. Indarrean jartzea**

Oinarri hauek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean.

**II. ERANSKINA****Dirulaguntzak lehia askearen bidez emateko deialdia, toki entitateetan etxebizitzak birgaitzeko egiten diren ekintzak finantzatzeko, bai toki erakundeentzat, bai entitate horietan bizi diren pertsona fisikoentzat****Lehenengoa. Deialdiaren xedea**

Dirulaguntza eman ahal izango da 20.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietan dauden 1.500 biztanletik beherako herriguneetan toki erakundeek dauzkaten etxebizitzak eta entitate horietan bizi diren pertsona fisikoek birgaitzeko egiten diren ekintzetarako.

**Bigarrena. Laguntzen hartzaileak**

Dirulaguntza hauek jaso ahal izango dituzte Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeek, baldin eta 1.500 biztanle baino gutxiagoko herriguneak badituzte eta 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan badaude.

Toki erakunde horietan bizi diren pertsona fisikoak ere dirulaguntzen hartzaileak izan ahalko dira.

Dirulaguntza hauek eskatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak titularrak, maizterrak, gozamenak edo birgaitze beharreko etxebizitzaren gaineko beste edozein erabilera edo gozamen eskubideren titular izan beharko dira.

Pertsona fisikoek kasuan, dirulaguntzaren helburua betetzen dela justifikatzen den egunean etxebizitza horretan errolatuta egon beharko dute eta bertan bizi. Baldintza hori betetzen ez bada, ordaindutako aurrerakina itzultzeko prozedura hasiko da.

Toki erakundeek kasuan, birgaitutako etxebizitzak alokairurako, zuzkidura bititokirako, genero indarkeriako egoeran dauden pertsonentzako bititokirako eta gizarte bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen berehalako arreta emateko erabili beharko dira.

Ezin dira onuradun izan Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak IV. tituluan adierazitako arau hausteren bat dela eta zehatu direnak, ez eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak jasotako kasuetan daudenak ere.

**Hirugarrena. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak**

Diruz laguntzeko modukotzat joko dira, eta, beraz, deialdi honen kargura finantzatu ahal izango dira, deialdi bakoitzean zehazten diren koefizienteekin:

- a. Birgaitze proiektuak idaztea.
- b. Birgaitzearen gauzatze materiala, urbanizazio jarduketak barne.
- c. Proiektua gauzatzeko zuzendaritza teknikoak.

Diruz lagundu ahal izango dira 1.500 biztanletik beherako herriguneetan biztanleriari eusten laguntzeko birgaitze jarduera guztiak, baldin eta tipologia hauetan sailkatzen badira:

a. Egitura egokitzeko eta/edo fatxadak eta estalkiak birgaitzeko obrak, etxebizitzaren birgaitze integral kontserbatzailea helburu duten esku hartzeetan.

b. Bizigarritasuna edota akaberak egokitzeko barne obrak, etxebizitzaren birgaitze integral kontserbatzailea helburu duten esku hartzeetan.

c. Egitura egokitzeko eta/edo fatxadak eta estalkiak birgaitzeko obrak, etxebizitzaren zati bat birgaitzea edo eraberritzea helburu duten esku hartzeetan.

d. Bizigarritasuna edota akaberak egokitzeko barne obrak, etxebizitzaren zati bat birgaitzea edo eraberritzea helburu duten esku hartzeetan.

Onuradunak jabeak, maizterrak, gozamedunak edo birgaitu beharreko etxebizitzaren gaineko erabilera edo gozamen eskubideen beste edozein titular izan beharko dira, eta birgaitze jarduketek indarrean dagoen hirigintza legeria bete beharko dute.

#### **Laugarrena. Dirulaguntzen zenbatekoa**

1. Dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2021. urterako aurrekontuko partida honen kontura emango dira: "10.2.00.16.02.780.00.01 Etxebizitza birgaitzeko laguntzak"; gehienez ere 100.000,00 euroko zenbatekoaz 2021eko ekitaldi honetarako eta 150.000,00 euroko zenbatekoaz 2022ko ekitaldirako.

Toki erakundeentzako kopurua 75.000,00 euro izango da, honela banatuta: 25.000,00 euro 2021ean eta 50.000,00 euro 2022an.

Pertsona fisikoentzako kopurua 175.000,00 euro izango da, honela banatuta: 75.000,00 euro 2021ean eta 100.000,00 euro 2022an.

Deialdiari kopuru gehigarri bat erantsi ahal izango zaio, baldin eta aurrekontu krediturik badago, aurrekontua betearazteko arau egokian Arabako Batzar Nagusiek hasiera batean baimendutako mugarekin. Gehieneko zenbatekoa handitzeko ebazpena ALHAOn argitaratuko da; hala ere, argitaratzeak ez du esan nahi epea zabaltzen denik eskaera berriak aurkezteko ezta epe berri bat ere ebazpena emateko.

Deialdiaren laguntza-ildo bakoitzean sor daitezkeen gaindikinek beste ildoetako edozein handitu ahal izango dute ekitaldi beraren baitan.

2. Kontzeptu hauek diruz lagundu daitezke:

- Obren kostua, BEZa barne, onuradunak berreskuratzekoa ez baldin bada.
- Obra lizentziari dagokion kostuak.
- Proiektua idazteko, obrak zuzentzeko eta segurtasuna eta osasuna koordinatzeko ordainsari teknikoaren kostua, BEZa barne, onuradunak berreskuratzekoa ez baldin bada.
- Azterlan arkeologikoen, geoteknikoen edo jardunerako beharrezkoak diren bestelako ordainsari teknikoaren kostuak, BEZa barne, onuradunak berreskuratzekoa ez baldin bada.

3. Ematen den dirulaguntzaren zenbatekoa aldakorra izango da, eta ondoko ehuneko hauek aplikatuz zehaztuko da:

- Proiektuak idazteko, obrak zuzentzeko eta segurtasuna eta osasuna koordinatzeko kostua eta aldeaz aurreko azterlan arkeologiko edo geoteknikoen edo jardunerako beharrezkoak diren bestelako ordainsari teknikoaren kostua: dagozkion ordainsari teknikoaren zenbatekoaren ehuneko 25, BEZa barne, onuradunak berreskuratzekoa ez baldin bada (gehienez ere obraren ehuneko 10eraino).
- Udalaren obra lizentziaren kostua: zenbatekoaren ehuneko 25.



• Proiektuan jasotako birgaitzea gauzatzea: birgaitzearen aurrekontu osoaren ehuneko 25 (ordainsari teknikoak kenduta), BEZa barne, onuradunak berreskuratzekoa ez baldin bada.

Eman daitekeen gehieneko dirulaguntza 20.000,00 euro da pertsona fisikoentzat, eta 25.000,00 euro pertsona juridikoentzat.

Zenbateko horiek honela handituko dira:

• II. eranskinetako guneetarako ehuneko 10. Kasu honetan, pertsona fisikoei, gehienez ere, 22.000,00 euroko diru-laguntza emango zaie, eta pertsona juridikoei, 27.500,00 eurokoa.

• III. eranskinetako guneetarako, ehuneko 15. Kasu honetan, pertsona fisikoei gehienez ere 23.000,00 euroko diru-laguntza emango zaie, eta pertsona juridikoei, 28.750,00 eurokoa.

II. eta III. eranskinetako landa-guneak zehazteko, Arabako despulazio-prozesua aztertu eta diagnostikatu duen azterlan demografiko bat hartu da oinarri. Azterlan hori Euskal Herriko Unibertsitateak egin du, Arabako Foru Aldundiak eskatuta.

### **Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea eta modua**

Dirulaguntza eskaerak aurkezteko epea, oinarri eta deialdi hauek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da.

Eskaerak aurkezteko epea aurrekontu esleipena agortu arte egongo da irekita, edo hala gertatzen ez bada azaroaren 30eko 23:59ra arte. Aurrekontu esleipena bukatzen baldin bada, web-gune honetan argitaratuko da: [www.araba.eus](http://www.araba.eus).

Laguntza hauek lortu nahi dituzten pertsona fisiko edo juridikoen eskaeretan, egin beharreko birgaitzearen kontzeptua adierazi beharko da, baita proiektua idazteko eta gauzatzeko diru kostuaren aurrekontu xehatua ere. 2021eko urtarrilaren 1az gero hasitako jardunetarako eskaerak aurkeztu ahal izango dira.

Hemen aurkeztu behar dira eskaerak:

– Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean.

– Gasteizko, Guardiako eta Laudioko Ogasun bulegoen erregistroan.

– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan jasotako gainerako erregistroetako edozeinetan.

Hala ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betetz, honako hauek egoitza elektronikoa dagoen izapide zehatzaren bitartez (<https://egoitza.araba.eus/es/-/subvenciones-para-la-financiacion-de-acciones-conducen-tes-a-la-rehabilitacion-de-vivienda-en-entidades-locales>; <https://egoitza.araba.eus/es/-/subvencion-rehabilitacion-viviendas>; <https://egoitza.araba.eus/eu/-/dirulaguntzak-toki-erakundeentzat-etxebizitzak-birgaitzeko-egiten-diren-ekintzak-finantzatzeko>; <https://egoitza.araba.eus/eu/-/etxebizitzak-birgaitzeko-dirulaguntzak>) telematikoki aurkeztera behartuta daude: pertsona juridikoak, nortasun juridikorik gabeko erakundeak, elkargoko kide izatea nahitaezkoa duen jarduera profesional batean dihardutenak, jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako, eta administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun bat ordezkatzeko dutenak.

Aurkeztutako eskaerak ez badituzte betetzen adierazitako baldintzak, Lurralde Oreka Zuzendaritzak interesa dutenei eskatuko die hamar eguneko epean akatsak zuzendu edo aginduzko agiriak aurkez ditzatela. Hala egin ezean, eskaera artxibatatu egingo da eta beren eskaeran atzera egin dutela ulertuko da.

### **Seigarrena. Prozedura izapidetzea eta aurkeztu beharreko agiriak**

1. Espedientea izapidetzeko eskumena duen organoa Lurralde Oreka Saileko Toki Administrazioaren eta Larrialdien Zerbitzua da.

2. Laguntzak eskuratzeko, beharrezkoa izango da honako agiri hauek aurkeztea:

- Behar bezala betetako eskabidea.
- Eskatzailearen eta (irabazpidezkoen edo ondasun komunikazioaren eraentza ekonomikoan egonez gero) haren ezkontidearen NANaren fotokopia, edo IFZrena, toki erakundeak izatekotan. Senar-emazteen kasuan, ezkontzaren eraentza ekonomikoaren adierazpena.
  - Pertsona eskatzaileari eta bere ezkontideari edo pertsona juridikoari buruzko ziurtagiria, dagokion Ogasunak emana, zerga guztiak aurkeztu eta ordaindu direla dioena, eta, gainera, pertsona juridikoen kasuan, Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean daudela dioen ziurtagiria.
  - Laguntzaren xede diren etxebizitzaren gaineko jabetza edo gozamen eskubidea edo haiek gozatzeko beste edozein titulu egiaztatzen duen eskritura publikoaren fotokopia. Alokaturik egonez gero, indarrean dagoen kontratua aurkeztu behar da.
  - Birgaitzearen titularrak jabetza ez daukan jardunen kasuan, jabearen baimena aurkeztu behar da, bertan berariaz adierazita arau hau, dagokion deialdia eta haren ondoriozko eskubide eta betebeharrak ezagutzen dituela. Baimen horretan, era berean, birgaikuntza obrak nork ordainduko dituen ezartzen duen akordioa ere agertu behar da.
  - Udalaren lizentziaren edo hartarako eskabidearen kopia, bai eta beste baimen sektorial batzuen kopia ere, holakorik eskatzen bada.
  - Egikaritzaren gaineko aurrekontua, partidatan bereizita. Zerga betebeharrak egunean dituen enpresak egingo du aurrekontu hori.
  - Birgaitu behar diren azalaren memoria, deialdi bakoitzean ezarritako baldintzen arabera.
  - Hirugarrenen fitxa, behar bezala beteta.
  - Arabako Foru Aldundiaren zerbitzu teknikoek edo juridikoek beharrezkotzat jotzen duten beste edozein agiri.

#### **Zazpigarrena. Dirulaguntzaren muga**

Ematen diren dirulaguntzen zenbatekoa ezin daiteke inola izan pertsona edo entitate onuradunek egin beharreko birgaitze jardunen kostua baino handiagoa, beste dirulaguntza edo diru sarrerak ere kontuan hartuta.

#### **Zortzigarrena. Ebazpena**

1. Laguntzak dirulaguntza eskarien aurkezpen ordenaren arabera esleitu dira, deialdiaren saldoa bukatu arte.
  2. Oinarri arautzaileetan eta deialdi honetan xedatutakoa betetzen dela egiaztatzeko, eskariak honakoek osatutako organo kolegiatuak aztertuko ditu:
    - Toki Administrazioaren eta Larrialdien Zerbitzuaren burua, edo berak eskuordetzen duena.
    - Toki Administrazioaren eta Administrazio Kudeaketaren Zerbitzuaren burua edo hark eskuordetzen duena.
    - Toki administrazioko teknikaria.
- Batzorde horrek laguntza emateko proposamen txostenak idatziko ditu, eta gastuak baimentzeko, xedatzeko eta antolatzeko gaitutako organoak ebatzi egingo du, eskaera emanaz edo ukatuz, gehienez ere 5 hilabeteko epean, eskaerak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo egunetik aurrera.
3. Dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak 42. eta 43. artikuluetan ezartzen dituen moduetan.
  4. Eskatzaileari ez zaio entzunaldi izapiderik emango, ebazpenean ez baitira kontuan hartuko eskatzaileek aurkeztutako egitateak eta agiriak baino.

5. Eskaera bakoitzari dagozkion izapideak bete eta gero, Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuari aurkeztuko zaizkio, eta hark ebartziko ditu dagokion Foru Aginduaren bidez, zeinak amaiera emango baitio administrazio bideari.

6. Ebazpen horretan, baiezkoa bada, dirulaguntzaren zenbatekoa adieraziko da, bai eta beste hauek ere: ordaintzeko modua, zer baldintzarekin esleitu den, lanak gauzatzeko epea eta lana ezarritako epean bete ezean zer ondorio izango diren.

7. Aipatutako ebazpenaren berri emango zaie pertsona onuradunei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 42. eta 43. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

8. Ebazpenak administrazio bidea agortuko du. Haren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena) 8. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

9. Zuzenean aurka egin ezean, berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.

10. Pertsona fisiko edo juridiko onuradunen batek uko egiten badiu (uko hori gehienez ere bi hilabeteko epean egin beharko da, emakida jakinarazten denetik aurrera), dirulaguntza eman ahal izango zaie ondoko eskatzaile hauei, aurretik adierazitako lehentasun hurrenkerari jarraituz, deialdiari azkenean esleitutako diru kopuruaren mugaraino.

#### **Bederatzigarrena. Esleipena, proiektua gauzatzea eta justifikazioa**

Dirulaguntzak lehia askearen bidez emango dira.

Diruz lagundu daitekeen gehienezko ehunekoa jardueraren kostuaren arabera kalkulatu da. Jardueraren kostuen barne egongo da diru-laguntza jaso dezakeen aurrekontu jarduera gehi BEZa.

Erakunde onuradunek ebazpenaren jakinarazpena jasotzen dutenetik 10 egun baliodunetan dirulaguntzari idatziz uko egiten ez badiote, ebazpenean ezarritakoa onartu dutela pentsatuko da.

Hornidura agortu ondoren dirulaguntzarik gabe geratzen diren eskaerak poltsa batean sartuko dira puntuazioaren araberako hurrenkeran. Eskatzaile hauek dirulaguntza jasoko dute hasieran banatutako funtsetako batzuk erabiltzen ez badira, onuradunen batek bere dirulaguntzari uko egin diolako. Ukoak bi hilabeteko epearen barruan egin beharko dira dirulaguntza eman zaiela jakinarazten denetik aurrera.

1. Kontratu publikoei buruz indarrean dagoen araudiaren kalterik gabe, kontratu bakoitza esleitzerakoan kontuan hartu beharko da dirulaguntzen foru arauaren 29.3 artikulua.

2. Dirulaguntza jasotzen duen proiektuak 2022ko abenduaren 31 baino lehenago erabat gauzaturik egon beharko du. Justifikazioak laguntzaren xedea den etxebizitza birgaitze osoa hartu beharko du barnean.

3. Kasu berezietan, eta aurretik bidezko justifikazioa onartuta, Lurralde Orekaren Sailak dirulaguntzaren xedea gauzatzeko eta obligazioa onartzeko epealdia luzatzea onartu ahal izango du. Luzapenaren iraupena kasuan kasuko inguruabarren arabera finkatuko da; nolahi ere, gehienez epealdia 6 hilabete luzatu ahal izango da, interesdunak hasierako epealdia amaitu aurretik eskaera justifikatua aurkeztuz gero.

4. Onuradunak beharturik daude dirulaguntza eskaeraren xedea izan den birgaitze obra aurreko 2. puntuari adierazitako epean burutzera.

5. Onuradunek betiere 5 urtez gordeko dituzte, Arabako Foru Aldundiaren eskura, sortu diren gastuen ziurtagiri eta froga-agiri guztiak, bidezkoak diren egiaztapenak egin ahal izateko.

6. Ordainketak izendunak izango dira pertsona fisiko edo juridiko onuradun bakoitzarentzat.

Dirulaguntzen ordainketa ondoko era honetan egingo da:

– Zenbateko osoaren ehuneko 40, dirulaguntza ematean, baldin eta obra lizentzia aurkeztu bada.

– Gainerako ehuneko 60, onuradunek fakturak eta eman zaien dirulaguntzaren zenbatekoaren ordainketa agiriak aurkeztu ondoren.

7. Dirulaguntzen justifikazioa justifikatutako kontu sinplifikatua izango da, eta hauek osatuko dute:

1) Jardun memoria bat, egiaztatzen duena dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla, eta burututako ekintzak eta lortutako emaitzak adierazten dituena.

2) Teknikari eskudun batek (arkitektoa, aparejadorea...) ikus-onetsitako proiektuaren edo izenpetutako ziurtagiriaren kopia, obren izaeragatik beharrezkoa baldin bada. Horren barnean hauek ere izango dira:

3) Udal lizentziaren orijinala edo kopia konpultsatua, baita Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren ordainketaren ziurtagiria ere.

4) Jarduerako gastu eta inbertsio guztien zerrenda sailkatu bat, ondoko hauek adierazten dituena: hartzekoduna, gastu agiriaren edo fakturaren zenbakia, zenbatekoa, jaulkitze data eta, hala badagokio, ordainketaren data. Honako hauek aurkeztu beharko dira: fakturak edo jatorrizko agiri baliokideak edo fotokopia konpultsatuek eta 1.000 euro baino gehiagoko gastuen ordainketa ziurtagiriak. Epigrafe horretan justifikatuko da erakunde onuradunak BEZa benetan berreskuratu ezin izatea.

5) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru sarrera eta dirulaguntzen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

6) Hala badagokio, itzulketaren ordainketa gutuna, aplikatu ez diren gerakinen kasuan, baita haietatik eratorritako interesena ere.

Aurreko laugarren apartatutan jasotakoaz gainera, organo emaileak froga-agirien ehuneko 10 egiaztatuko du laginketa tekniken bidez, eta portzentaje hori froga-agiri guztietaraino handitu ahal izango da, gorabehera esanguratsurik gertatu baldin bada.

Justifikazio kontua aurkezteko epemuga 2023ko martxoaren 31 izango da, baina epe hori luzatu ahal izango da aurreko hirugarren apartatuan xedatutakoaren arabera.

7) 38/2003 Legearen 31.3 artikuluan (38/2003 Legea, azaroaren 17koa, dirulaguntzen orokorra) eta 11/2016 Foru Arauaren 29.3 artikuluan (11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzena) ezarritakoa betez, diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoak gainditu egiten baditu 9/2017 Legean (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, sektore publikoko kontratuena) kontratu txikirako ezarritako kopuruak, erakunde onuradunak hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu gutxienez, obrarako konpromisoa hartu, zerbitzua eman edo ondasuna entregatu baino lehen, salbu eta bere ezaugarri berezien ondorioz merkatuan ez badago erakunde kopuru nahikorik hori egin, eman edo hornitzeko, edo gastua dirulaguntzaren aurretik egin bada.

Hiru eskaintzak froga-agiriekin batera edo, hala badagokio, dirulaguntza eskabidean aurkeztu beharko dira. Horien artean aukeratzea eraginkortasun eta ekonomia irizpideei jarraituz egingo da eta, aukeratutako eskaintza diru aldetik hoberena ez denean, egindako aukera esanbidez arrazoitu beharko da memoria batean.

#### **Hamargarrena. Informazioa eman beharra**

Dirulaguntza jasotzen duten pertsona fisiko edo juridikoak behartuta egongo dira Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontuen Epaitegiak edo beste organo eskudun batzuek eskatzen dieten informazio guztia ematera.

Erakunde onuradunak jakinarazi egingo dio organo esleitzaileri helburu bererako beste dirulaguntzarik edo laguntzarik eskuratu duenez edo eskuratzeko eskaerarik egin duenez, estatuko nahiz nazioarteko beste edozein administrazio edo erakunde publikok emanik edo edozein entitate edo erakunde pribatuk emanik.

**Hamaikagarrena. Dirulaguntza galtzea**

Pertsona fisiko edo juridiko onuradunek galdu ahal izango dituzte deialdi honetan emandako dirulaguntzak, aldez aurretik espedientea hasita, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauan eta azaroaren 17ko 38/2003 Legean (Dirulaguntzen Lege Orokorra) ezartzen diren kasuetan.

Dirulaguntza galtzen bada espedientearen bertutez, lehen aipatutako xedapenetan ezarritako zehapen araubidea ezarriko da.

**Hamabigarrena. Publizitatea**

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.

**Hamahirugarrena. Errekurtsoak**

Deialdi hau eta hartatik eratorritako administrazio egintza guztiak aurkaratu ahal izango dira Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean xedatutako kasu eta moduetan.

**Hamalagarrena. Azken klausula**

Oinarri hauetan xedatuta ez dagoen guztia Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauak eta azaroaren 17ko 38/2003 Legeak (Dirulaguntzen Lege Orokorra) arautuko dute, bai eta aplikagarriak diren gainerako arauak ere.

## III ERANSKINA

ZONA O NÚCLEO CONSIDERADO EN RIESGO DE DESPOBLACIÓN DESPOBLAZIO ARRISKUAN KONTUTAN HARTUTAKO TOKI ERAKUNDEA	NOMBRE MUNICIPIO UDALERRIAREN IZENA	NOMBRE DE LA CUADRILLA KUADRILAREN IZENA
Abezia	Urkabustaiz	Gorbeialdeko Kuadrilla/ Cuadrilla de Gorbeialdea
Agiñaga	Ayala/Aiara	Ayala / Aiara
Albeiz/Albéniz	Asparrena	Arabako Lautada / Llanada Alavesa
Alcedo	Lantarón	Añana
Aletxa	Arraia-Maeztu	Campezo-Montaña Alavesa / Kanpezu-Arabako Mendialdea
Altube	Zuia	Gorbeialdeko Kuadrilla/ Cuadrilla de Gorbeialdea
Antezana de la Ribera	Erriberagoitia/Ribera Alta	Añana
Añes	Ayala/Aiara	Ayala / Aiara
Apellániz/Apiñaz	Arraia-Maeztu	Campezo-Montaña Alavesa / Kanpezu-Arabako Mendialdea
Arenaza/Areatza	Arraia-Maeztu	Campezo-Montaña Alavesa / Kanpezu-Arabako Mendialdea
Arreo	Erriberagoitia/Ribera Alta	Añana
Arriano	Kuartango	Añana
Arriola	Asparrena	Arabako Lautada / Llanada Alavesa
Artaza/Artatza	Erriberagoitia/Ribera Alta	Añana
Artxua/Archúa	Kuartango	Añana
Astúlez/Estuliz	Valdegovía/Gaubea	Añana
Atauri	Arraia-Maeztu	Campezo-Montaña Alavesa / Kanpezu-Arabako Mendialdea
Bachicabo	Valdegovía/Gaubea	Añana
Baroja-Zumentu	Peñacerrada-Urizaharra	Campezo-Montaña Alavesa / Kanpezu-Arabako Mendialdea
Barriobusto/Gorrebusto	Oyón-Oion	Laguardia-Rioja Alavesa / Biasteri-Arabako Errioxako Kuadrilla
Barrón	Erriberagoitia/Ribera Alta	Añana
Bujanda	Campezo/Kanpezu	Campezo-Montaña Alavesa / Kanpezu-Arabako Mendialdea
Caicedo de Yuso	Lantarón	Añana
Campijo	Artziniega	Ayala / Aiara
Caranca	Valdegovía/Gaubea	Añana
Castillo Sopeña	Erriberagoitia/Ribera Alta	Añana
Corro	Valdegovía/Gaubea	Añana
Dallo	Barrundia	Arabako Lautada / Llanada Alavesa
Diseminados de Zigoitia	Zigoitia	Gorbeialdeko Kuadrilla/ Cuadrilla de Gorbeialdea
Egileor	Agurain/Salvatierra	Arabako Lautada / Llanada Alavesa
Escanzana	Berantevilla	Añana
Etxaguen	Aramaio	Gorbeialdeko Kuadrilla/ Cuadrilla de Gorbeialdea
Faido/Faidu	Peñacerrada-Urizaharra	Campezo-Montaña Alavesa / Kanpezu-Arabako Mendialdea
Fresneda	Valdegovía/Gaubea	Añana
Galarreta	San Millán/Donemiliaga	Arabako Lautada / Llanada Alavesa
Gereñu	Iruraiz-Gauna	Arabako Lautada / Llanada Alavesa
Guillarte/Gibilloarrate	Kuartango	Añana
Gurendes	Valdegovía/Gaubea	Añana
Ibarguren	Asparrena	Arabako Lautada / Llanada Alavesa
Ibisate	Arraia-Maeztu	Campezo-Montaña Alavesa / Kanpezu-Arabako Mendialdea
Igay	Erriberabeitia	Añana
Katadiano	Kuartango	Añana
Lacervilla	Berantevilla	Añana
Lacorzana	Armiñón	Añana
Lacorzanilla	Berantevilla	Añana
Lagrán	Lagrán	Campezo-Montaña Alavesa / Kanpezu-Arabako Mendialdea
Lalastra	Valdegovía/Gaubea	Añana
Landa	Arratzua-Ubarrundia	Gorbeialdeko Kuadrilla/ Cuadrilla de Gorbeialdea

ZONA O NÚCLEO CONSIDERADO EN RIESGO DE DESPOBLACIÓN DESPOBLAZIO ARRISKUAN KONTUTAN HARTUTAKO TOKI ERAKUNDEA	NOMBRE MUNICIPIO UDALERRIAREN IZENA	NOMBRE DE LA CUADRILLA KUADRILAREN IZENA
Langarika	Iruraiz-Gauna	Arabako Lautada / Llanada Alavesa
Larrazkueta	Urkabustaiz	Gorbeialdeko Kuadrilla/ Cuadrilla de Gorbeialdea
Leciñana del Camino/Leziñana	Lantarón	Añana
Llantenó	Ayala/Aiara	Ayala / Aiara
Lukiano	Zuia	Gorbeialdeko Kuadrilla/ Cuadrilla de Gorbeialdea
Luna	Kuartango	Añana
Maroño	Ayala/Aiara	Ayala / Aiara
Mezquia	San Millán/Donemiliaga	Arabako Lautada / Llanada Alavesa
Mijancas	Berantevilla	Añana
Molinilla	Lantarón	Añana
Montoria	Peñacerrada-Urizaharra	Campezo-Montaña Alavesa / Kanpezu-Arabako Mendialdea
Morillas	Erriberagoitia/Ribera Alta	Añana
Munain	San Millán/Donemiliaga	Arabako Lautada / Llanada Alavesa
Musitu	Arria-Maeztu	Campezo-Montaña Alavesa / Kanpezu-Arabako Mendialdea
Nanclares de Ganboa/Langara Ganboa	Arratzua-Ubarrundia	Gorbeialdeko Kuadrilla/ Cuadrilla de Gorbeialdea
Navarrete	Bernedo	Campezo-Montaña Alavesa / Kanpezu-Arabako Mendialdea
Ocio	Zambrana	Añana
Oiardo	Urkabustaiz	Gorbeialdeko Kuadrilla/ Cuadrilla de Gorbeialdea
Okariz	San Millán/Donemiliaga	Arabako Lautada / Llanada Alavesa
Orbiso	Campezo/Kanpezu	Campezo-Montaña Alavesa / Kanpezu-Arabako Mendialdea
Osma	Valdegovía/Gaubea	Añana
Pipaon	Lagrán	Campezo-Montaña Alavesa / Kanpezu-Arabako Mendialdea
Portilla/Zabalate	Zambrana	Añana
Quejana/Kexaa	Ayala/Aiara	Ayala / Aiara
Quejo	Valdegovía/Gaubea	Añana
Quintanilla	Valdegovía/Gaubea	Añana
Retes de Tudela/Erretes Tudela	Artziniega	Ayala / Aiara
Ribaguda	Erriberabeitia	Añana
Róitegui/Erroitegi	Arria-Maeztu	Campezo-Montaña Alavesa / Kanpezu-Arabako Mendialdea
San Miguel	Erriberagoitia/Ribera Alta	Añana
San Román de Campezo/Durruma Kanpezu	Bernedo	Campezo-Montaña Alavesa / Kanpezu-Arabako Mendialdea
San Vicente de Arana/Done Bikendi Harana	Harana/Valle de Arana	Campezo-Montaña Alavesa / Kanpezu-Arabako Mendialdea
Santa Eulalia	Kuartango	Añana
Santa Koloma	Artziniega	Ayala / Aiara
Santurde	Berantevilla	Añana
Sendadiano	Kuartango	Añana
Sojoguti/Soxoguti	Artziniega	Ayala / Aiara
Soxo/Sojo	Ayala/Aiara	Ayala / Aiara
Tobera	Berantevilla	Añana
Txintxetru	San Millán/Donemiliaga	Arabako Lautada / Llanada Alavesa
Ugalde	Okondo	Ayala / Aiara
Urbina de Basabe	Kuartango	Añana
Uribarri Kuartango	Kuartango	Añana
Villamanca	Kuartango	Añana
Viñaspre/Binasperi	Lanciego/Lantziego	Laguardia-Rioja Alavesa / Biasteri-Arabako Errioxako Kuadrilla
Vírgala Mayor/Birgara Goien	Arria-Maeztu	Campezo-Montaña Alavesa / Kanpezu-Arabako Mendialdea
Zaitegi	Zigoitia	Gorbeialdeko Kuadrilla/ Cuadrilla de Gorbeialdea
Zestafe	Zigoitia	Gorbeialdeko Kuadrilla/ Cuadrilla de Gorbeialdea
Ziriano	Arratzua-Ubarrundia	Gorbeialdeko Kuadrilla/ Cuadrilla de Gorbeialdea
Zuaza/Zuhatza	Ayala/Aiara	Ayala / Aiara

## IV ERANSKINA

ZONA O NÚCLEO CONSIDERADO EN RIESGO DE DESPOBLACIÓN DESPOPULAZIO ARRISKUAN KONTUTAN HARTUTAKO TOKI ERAKUNDEA	NOMBRE MUNICIPIO UDALERRIAREN IZENA	NOMBRE DE LA CUADRILLA KUADRILAREN IZENA
Acebedo	Valdegovía/Gaubea	Añana
Alda	Harana/Valle de Arana	Campezo-Montaña Alavesa / Kanpezu-Arabako Mendialdea
Aloria	Amurrio	Ayala / Aiara
Andagoia	Kuartango	Añana
Andoin	Asparrena	Arabako Lautada / Llanada Alavesa
Angostina	Bernedo	Campezo-Montaña Alavesa / Kanpezu-Arabako Mendialdea
Aprikano	Kuartango	Añana
Arluzea	Bernedo	Campezo-Montaña Alavesa / Kanpezu-Arabako Mendialdea
Aspuru/Axpuru	San Millán/Donemiliaga	Arabako Lautada / Llanada Alavesa
Atiega/Atiaga	Añana	Añana
Basabe	Valdegovía/Gaubea	Añana
Basquiñuelas	Erriberagoitia/Ribera Alta	Añana
Beluntza	Urkabustaiz	Gorbealdeko Kuadrilla/ Cuadrilla de Gorbeialdea
Berrozi	Bernedo	Mendialdea
Bikuña	San Millán/Donemiliaga	Arabako Lautada / Llanada Alavesa
Bóveda	Valdegovía/Gaubea	Añana
Campillar (El)	Laguardia	Laguardia-Rioja Alavesa / Biasteri-Arabako Errioxako Kuadrilla
Cicujano/Zekuiano	Arria-Maeltu	Campezo-Montaña Alavesa / Kanpezu-Arabako Mendialdea
Etxabari-Kuartango	Kuartango	Añana
Etxegoien	Ayala/Aiara	Ayala / Aiara
Gantzaga	Aramaio	Gorbealdeko Kuadrilla/ Cuadrilla de Gorbeialdea
Guinea	Valdegovía/Gaubea	Añana
Iñurrieta	Kuartango	Añana
Izartza	Bernedo	Campezo-Montaña Alavesa / Kanpezu-Arabako Mendialdea
Jauregi	Iruraiz-Gauna	Arabako Lautada / Llanada Alavesa
Jokano	Kuartango	Añana
Jugo	Zuia	Gorbealdeko Kuadrilla/ Cuadrilla de Gorbeialdea
Kintana	Bernedo	Campezo-Montaña Alavesa / Kanpezu-Arabako Mendialdea
Kontrasta	Harana/Valle de Arana	Campezo-Montaña Alavesa / Kanpezu-Arabako Mendialdea
Korres	Arria-Maeltu	Campezo-Montaña Alavesa / Kanpezu-Arabako Mendialdea
Lahoz	Valdegovía/Gaubea	Añana
Leciñana de la Oca	Erriberagoitia/Ribera Alta	Añana
Loza	Peñacerrada-Urizaharra	Campezo-Montaña Alavesa / Kanpezu-Arabako Mendialdea
Luxo/Lujo	Ayala/Aiara	Ayala / Aiara
Luzuriaga	San Millán/Donemiliaga	Arabako Lautada / Llanada Alavesa
Marinda	Kuartango	Añana
Mendieta	Artziniega	Ayala / Aiara
Nograrro	Valdegovía/Gaubea	Añana
Onraitia/Erroeta	Arria-Maeltu	Campezo-Montaña Alavesa / Kanpezu-Arabako Mendialdea
Ribera	Valdegovía/Gaubea	Añana
Tortura	Kuartango	Añana
Ullibarri-Arana/Uribarri Harana	Harana/Valle de Arana	Campezo-Montaña Alavesa / Kanpezu-Arabako Mendialdea
Urarte	Bernedo	Campezo-Montaña Alavesa / Kanpezu-Arabako Mendialdea
Villafria	Bernedo	Campezo-Montaña Alavesa / Kanpezu-Arabako Mendialdea
Villamaderne	Valdegovía/Gaubea	Añana
Villamardones	Valdegovía/Gaubea	Añana
Villaverde	Lagrán	Campezo-Montaña Alavesa / Kanpezu-Arabako Mendialdea
Vírgala Menor/Birgara Barren	Arria-Maeltu	Campezo-Montaña Alavesa / Kanpezu-Arabako Mendialdea